

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Jose Luis Antxordoki Etxeberria

*Igantzi,
Nafarroa
(1944)*

Aurkibidea

Biografia



Igantzin sortu zen, Agerrean.
Guaso biak Igantzikoak
zituen.

Zintak

IGA-015

- **Proiektua:** Bortzirietako ahozko ondarea
- **Elkarrizketatzailea(k):** Lakar Iraizoz, Maite
- **Data:** 2007-08-29
- **Iraupena:** 62 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Emalea:** Arburua Etxeberria, Patri

IGA-016

- **Proiektua:** Bortzirietako ahozko ondarea
- **Elkarrizketatzailea(k):** Lakar Iraizoz, Maite
- **Data:** 2007-08-29
- **Iraupena:** 30 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Emalea:** Arburua Etxeberria, Patri

Pasarteak

1. Ameriketara joan zen. Bidaia

- **Erref:** IGA-015/002
- **Iraupena:** 0:05:52. **Hasi:** 00:00:06. **Bukatu:** 00:05:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

1965an joan zen Ameriketara koadrillako beste batzuekin. Lesakako taxista bat eta Elizondoko emakume bat ziren bidaia antolatzen zutenak. Bilbon artzain lanari buruzko galdera batzuk erantzun behar izan zituzten, proba moduan. Renorako bidaia azaltzen du, baita aurreneko egunetan egindakoa ere (lanerako arropa erosi zioten...). Arrantxoan (etxaldean) jateko ematen ziotena azaltzen du.

2. Renoko artzain lana

- **Erref:** IGA-015/003
- **Iraupena:** 0:05:14. **Hasi:** 00:05:58. **Bukatu:** 00:11:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

2000 ardi inguru zituzten eta lan ikaragarria zen umatze garaian (besteak beste, ura eta pentsua eman guztiei eta bildotsei begiratu). Ardi partida batekin mendira atera zenean, errifle bat eman zioten. Mendian tipi baten barruan, "katre" (etzaleku) txiki batean egiten zuen lo; astoaren gainean eramaten zuen hori guztia. Mendiko bizia eta lana nolakoa zen azaltzen du. Ardiak alde batera eta bildotsak kontrakora joaten ziren, askotan galtzen ziren...; etsita zegoen eta itzultzekotan ibili zen. Nagusiak ere arrantxoan lan egiteko ona zela, baina mendian arditan ibiltzeko txarra zela esan zion. Bere lagun bat Koloradon zegoen eta hara bidali zuten emigraziokoek.

3. Koloradora joan zen

- **Erref:** IGA-015/004
- **Iraupena:** 0:05:36. **Hasi:** 00:11:12. **Bukatu:** 00:16:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Koloradoko nagusia Sunbillakoa zen. Hasieran "rantxero" (sukaldari) lana egiten zuen; gero mendira arditara bidali zuten, baina Renon baino ardi eta bildots gutxiagorekin. Ogia egiten hasi zen, baina oso gaizki ateratzen zitzaion; behin, arrautzak egiteko, olio zelakoan, sirope erabili zuen. Galdu zeneko gauaren anekdota kontatzen du. Maiatzean mendira igotzen ziren eta irailean jaisten ziren. Rantxero jarri zuten berriz, hamazazpi lagunentzako janaria egiten zuen.

4. Ogia nola egiten zuen

- **Erref:** IGA-015/005
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 00:16:48. **Bukatu:** 00:17:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Rantxero zela, ogia egiten ikasi zuen. Ogia nola egiten zuen azaltzen du (irin ona, ur epela, gatza eta orantza); hiru masada egiten zituen.

5. "Rantxero" (sukaldari) lana

- **Erref:** IGA-015/006
- **Iraupena:** 0:03:19. **Hasi:** 00:17:54. **Bukatu:** 00:21:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Denetarik sukaldatzen zuen; postre anitz ere egiten zituen. Goizeko bostetan jaikitzen zen gosaria egiteko; esne, arrautz eta azukrearekin egindako opilak eta arrautzak (gainetik siropea botata) gosaltzen zuten. Ondoren, dena garbitu, ogia egin eta bazkaria prestatzen zuen (hamabi t'erdietan bazkaltzen zuten); zazpietarako afaria prestatu behar zuen berriz. Zer jaten zuten azaltzen du: amuarrairak, zerri-txuletak, fileteak, gisadua, oilaskoa...denetarik zuten.

6. "Kanpero" lana

- **Erref:** IGA-015/007
- **Iraupena:** 0:02:56. **Hasi:** 00:21:13. **Bukatu:** 00:24:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Gero "kanpero" joan zen basamortura sei hilabetez, lau mando eta bere zaldiarekin. Artzainen gauza guztiak eramaten zituen alor batetik bestera. Izan ere, 2500 ardi zituzten eta asko jaten zuten, behin eta berriz tokiz aldatu

behar zuten. Belar idorra jaten zuten ardiek; elur anitz egiten zuenean, berriz, artoa kamioietan eramaten zieten eta berak zakuak mandoekin eraman eta ardiei ematen zien

7. Hesiak egiten

- **Erref:** IGA-015/008
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:24:09. **Bukatu:** 00:25:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Arizonako nagusi batek peoiak eskatu zituen eta hara eraman zuten. Rantxero paratu zuten, baina han ez zen hainbeste jaki, ardi zaharrak jaten zituzten batez ere. Hiru hilabete ondoren, berriz Koloradora itzuli zen. Hamaika lagunekin "zerrakurak" (hesiak) egiten ibili zen mendian.

8. Ameriketatik bueltan

- **Erref:** IGA-015/009
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 00:25:27. **Bukatu:** 00:26:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Lau urte ondoren, Ameriketatik etorri zen, bere lagunaren semearen jaunartzera. Itzultzeko asmoa zuela-eta, bere gauza guztiak han utzi zituen; baina hemengo neska bat ezagutu zuen eta ez zen itzuli. Ameriketan 22.000 irabazten zituen eta hemen, berriz, 3.000. Urte bete Donostian izan zen igeltsero.

9. Non egiten zuten lo. Zakurrak

- **Erref:** IGA-015/011
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:27:02. **Bukatu:** 00:29:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Errepidea iristen zen tokietan rulota izaten zuten, baina, gehienetan, bidexkak ziren eta ezin zen eraman. Gehienetan dendatan egiten zuten lo, militarren katre (etzaleku) batzuetan; burnizko sukalde txiki bat ere izaten zuten. Zakurrek ere denda barruan egiten zuten lo, ardi-larruen gainean. Makarroiak koipearekin eta ardi zaharren saihetsak-eta jaten zituzten zakurrek. Artzainarentzat oso lagungarria zen zakurra.

10. Ardi zaharrak

- **Erref:** IGA-015/012
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 00:29:42. **Bukatu:** 00:31:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Ilunabarrean, artzainak ardiak biltzen zituen poliki-poliki zaldiarekin. Ardi zaharrak, gauetan hormatzen ziren eta goizean ezin ziren bakarrik altxatu. Ardi zaharrak hiltzen zirenean, larrutu behar zituzten eta nagusiari azaldu nola hil ziren.

11. Koiotea eta beste animaliak. Tranperoak

- **Erref:** IGA-015/013
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:31:24. **Bukatu:** 00:33:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

Gobernuko tranperoak joaten ziren koioteen kontrako tranpak jartzera. Koioteak ezezik, lehoiak, erbiak, untxiak, basoilarrak eta ahateak izaren ziren Ameriketako, besteak beste. Hartzak ere izaten ziren.

12. Garbiketa

- **Erref:** IGA-015/015
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 00:33:16. **Bukatu:** 00:34:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

Basamortuan, mandoekin eramaten zuten ura (agian lau orduko bidaia eginda) eta barreinu (azpil) handi batean garbitzen zuten gorputza; ondoren arropa garbitzen zuten han. Palangana (garbiontzi) txikiago bat ere bazuten hiru hanken gainean paratuta eta ondoan xaboi-pastilla bat; hor aurpegia garbitzen zuten hiruzpalau aldiz egunean.

13. Janaria

- **Erref:** IGA-015/016
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:34:19. **Bukatu:** 00:35:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

Zakurrei ardi zaharren haragia ematen zieten, beraie, berriz, bildotsak jaten zituzten. Nagusiek, besteak beste, esparragoak, lekak eta alcachofak eramaten zizkietan. Oso ongi jaten zuten.

14. Frantziara mendira eta harrobian lanean

- **Erref:** IGA-015/018
- **Iraupena:** 0:00:14. **Hasi:** 00:36:00. **Bukatu:** 00:36:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

Ameriketatik itzuli ondoren, Frantziara mendira joan zen eta han bi urte izan

zen lanean. Azkenik, harrobian hasi zen lanean eta 30 urte egin ditu han, jubilatuta arte.

15. Ura

- **Erref:** IGA-015/019
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 00:36:14. **Bukatu:** 00:38:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Ameriketan, segun zein parajetan, ur gazia izaten zen (kotoi-landaretik ateratzen zena adibidez) eta ospina botatzen zioten edan ahal izateko. Gauaz, kotoi-landaretik ura goiti ateratzen zen eta plastiko bat jartzen zuten ura gordetzeko. Basamortuan zeudela, berriz, neguan elurra urtzen zuten (ardiek ere elurra janda ez ziren egarri). Urmaelak zeudenean, ardiak edatera joaten ziren, neguan horma hautsi behar zen.

16. Janzkera

- **Erref:** IGA-015/020
- **Iraupena:** 0:00:44. **Hasi:** 00:38:13. **Bukatu:** 00:38:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Ameriketan, hango arropak janzten zituzten.: atorra eta galtza bakeroak, "cowboyen" botak, zapia eta kapela. Hemen baino merkeagoa zen han arropa.

17. Ingelesa

- **Erref:** IGA-015/021
- **Iraupena:** 0:02:14. **Hasi:** 00:38:57. **Bukatu:** 00:41:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Ameriketara iritsi zirenean ez zekiten ingelesez. Aurreneko nagusiarekin arazoak izan zituen. Dena dela, keinuekin ederki konprenitzen ziren

18. Soldaduska eta Ameriketara joan

- **Erref:** IGA-015/022
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 00:41:11. **Bukatu:** 00:42:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Berak ez zuen soldaduska egin behar, bista zela-eta. Ameriketara joateko baimena arazorik gabe lortu zuen. Dena dela, han zegoela, urtero kartilla militarra pasatzera joan behar zuen. Bere adineko beste mutil batzuk Ameriketara joan ziren soldaduska ez egiteko; batzuk, baina, itzuli zirenean egitera behartu zituzten.

19. Ameriketatik ekarritako dirua

- **Erref:** IGA-015/023
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:42:57. **Bukatu:** 00:43:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Ameriketan izandakoek, herrira itzultzerakoan, irabazitako diruarekin etxea erosten zuten gehienetan. Baten batek kamioneta bat erosi zuen.

20. Frantzian mendian lanean

- **Erref:** IGA-015/024
- **Iraupena:** 0:02:33. **Hasi:** 00:43:57. **Bukatu:** 00:46:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Ameriketatik itzuli ondoren, Frantziara joan zen lanera. Egun osoa mendian izaten ziren. Aurrenekoz, txabola eta ohatzeak egin zituzten. 18 lagun ziren eta binaka egiten zuten lo. Goizean, udan, 6etan jaikitzen ziren, kafea hartu, zatoa bete eta lanera. Gero, sukaldaria joaten zen gazta eta txokolatearekin eta bederatziak aldera gosaltzen zuten. Ordu batean, rantxeroa igotzen zen berriz eltze handi batekin eta bazkaltzen zuten: besteak beste, gisatua, zerri-txuleta, oilasko errea eta ogia. Gero berriz lanera, ilundu arte. Udan, arratsaldeko 6etan askaria hartzen zuten: txokolatea, gazta eta ardoa. Iluntzen zenean, txabolara jaisten ziren eta sukaldariak prestatutako patata salda jaten zuten lo egin aurretik.

21. Arropa garbitu mendian

- **Erref:** IGA-015/025
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:46:30. **Bukatu:** 00:48:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Astean behin, arropa garbitzen zuten. 200 litroko bidoian paratu ura irakiten eta han sartzen zuten arropa. Ziri handi batekin bueltak eman eta beratzen zen arropa. Igandetan sukaldariarekin adosten zuten zer jan.

22. Mendiko lana

- **Erref:** IGA-015/026
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 00:48:26. **Bukatu:** 00:50:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Lan onena egiten zuela esaten du. Kateekin egurra ateratzen zuen, hiruzpalau metro kubikoko abetoak ziren. Hiru edo lau lotzen zituen kateekin eta kamioia zegoen tokiraino eramaten zituen. Beste lagunek beste lanetan ibiltzen ziren: besteak beste, motosierrarekin arbolak botatzen, aizkorarekin adarrak kentzen eta azalak kentzen. Arbolak eskuz kargatzen zituzten kamioietan.

23. Igandeak. Pastis eta bazkari ona

- **Erref:** IGA-015/027
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 00:50:48. **Bukatu:** 00:52:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

Igandetan hamabi t'erdia arte egiten zuten lan. Menditik jaitsi eta, lehenik eta behin, Ricard edaten zuten. Jaten ari zirenean diziplina handia zegoen, eta norbait gaizki portatzen bazen (adibidez mahaian puzker bat botata), pastis edaririk gabe gelditzen zen eta hurrengo botila berak ordaindu beha zuen. Bazkaria ere hobeagoa zen igandetan: ogi berria, oilaskoa, tomate eta letxuga... Iratin, berriz, babak besterik ez zuten jaten.

24. Soldata. Ardoa

- **Erref:** IGA-015/029
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:53:22. **Bukatu:** 00:54:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

Frantzian 21.000 pezeta irabazten zuen hilabetero, Ameriketako baino mila pezeta gutxiago. Nahi adina ardoa ematen zieten; ardo garratza sifoiarekin nahasia.

25. Harrobian lanean

- **Erref:** IGA-015/030
- **Iraupena:** 0:06:31. **Hasi:** 00:54:34. **Bukatu:** 01:01:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

Frantziatik etorri bezain laster, harrobian hasi zen lanean. Lehenbizi kamioiekin hasi zen materiala ateratzen eta gero makinista izan zen. Bera hasi baino hiru urte lehenago paratu zituzten makinak. Harrobiko lana nolakoa zen azaltzen du, baita erabiltzen ziren makinak ere. Jubilatuko arte lan egin zuen harrobian; oso lan gogorra eta arriskutsua zen bertakoa. Bederatzi langile ziren.

26. Bonbak eztanda egin eta zauritu ziren

- **Erref:** IGA-016/001
- **Iraupena:** 0:04:37. **Hasi:** 00:00:02. **Bukatu:** 00:04:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

1951ean, zortzi urte zituela, tomate pote antzeko zerbait aurkitu zuten eta haur guztiak ostikoka ibili ziren harekin jolasean egun osoa. Azkenik, harri handi batekin jo eta eztanda egin zuen. Ondoan zegoen haurra hurrengo egunean hil zen eta bera eta bere bizkia oso larri zauritu ziren. Bi urte baino gehiago izan zen ospitaletan

27. Haurtzaroa. Baserriko bizitza. Janaria

- **Erref:** IGA-016/002
- **Iraupena:** 0:03:01. **Hasi:** 00:04:39. **Bukatu:** 00:07:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

Bere amak kontatzen zion, baserritik mezara oinutsik joaten zirela eta han abarkak janzen zituztela (aurreneko mezara ahizpa bat joaten zen eta ondorengora, bestea). Jateko gutxi izan arren, bisitan etortzen zirenei magrak ematen zizkieten. Esne, zerri eta aretxeren bat saltzen zituzten diru piska bat ateratzeko. Jateko eltzaria (ilar gorria), opil eta esnea izaten zuten batez ere. Oilaskoak saltzen zituzten eta arrautzak mandatuak egiteko (trukatzeko) erabiltzen zituzten: azukre eta olioak lortzeko, batik bat. Aitaren ardoa giltzapean gordetzen zuten. Gaztaina biltzen zen, etxera keretan eramaten zuten eta iratzekin tapatzen zituzten. Gaueko menua: gaztaina, esne eta opila. Garbantzoak bestetan jaten zituzten

28. Haurtzaroko bestak

- **Erref:** IGA-016/003
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:07:40. **Bukatu:** 00:08:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

Garbantzuak eta oilasko errea bestetan besterik ez zuten jaten. Postre berezia ere izaten zuten: arroz-esnea galletekin. Kafea, anis eta Cognaca kanpokoentzat izaten zen. Irundik etortzen ziren osaba-izebak hogeitaz pezetan ematen zizkieten eta korrika joaten ziren herrira, "tiropitxonean" aritzeko.

29. Gaztain biltzea. Esnea eta opila

- **Erref:** IGA-016/004
- **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 00:08:50. **Bukatu:** 00:10:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

Irailan edo urrian gaztaina biltzera joaten ziren. Aita goiti joaten zen eta haga luze batekin gaztainak botatzen zituen. Besteek mako batzuekin sare handi batera biltzen zituzten eta handik eskortara; iratzeekin eztaltzen zuten azkenik. Gero, behar zenean, gurdiaekin joaten ziren eta morkotsak kargatzen zituzten. Danbolinean erreta edo egosita jaten zituzten. Askotan

gaztainak xehetu eta esne eta opilarekin nahasten zituzten. Opil artean urdaia edo gazta sartzen zuten. Baserrian behi-gazta egiten zuten.

30. Lesakako merkatua. Salerosketak

- **Erref:** IGA-016/006
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 00:11:11. **Bukatu:** 00:13:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Ortzegunetan Lesakan merkatua izaten zen eta hara joaten ziren gurasoak haragia eroatera. Zaldi haragia ekartzen zuten. Esnea saltzen zuten: berrogei litro, 400 pezeta inguru; 150 kiloko aretxea salduta, 6000 pezeta lortzen zituzten. Oilaskoak ere saltzen zituzten

31. Dendak

- **Erref:** IGA-016/007
- **Iraupena:** 0:00:48. **Hasi:** 00:13:00. **Bukatu:** 00:13:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Azukrea zakutan zeukaten eta (estraza) zatar-paperetan banatzen zuten. Kafea poltsetan eta ardoa barriketan ekartzen zuten eta tutu malgu batekin betetzen zituzten botilak

32. Aitari janari hoberena

- **Erref:** IGA-016/008
- **Iraupena:** 0:00:37. **Hasi:** 00:13:48. **Bukatu:** 00:14:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Amak aitari janari hoberena ematen zion lan gehien egiten zuelakoan. Haurrak behi aitzinean ibiltzen ziren batzuetan.

33. Zizareak

- **Erref:** IGA-016/009
- **Iraupena:** 0:00:41. **Hasi:** 00:14:25. **Bukatu:** 00:15:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Jendeak zizare anitz izaten zituen lehen; horren kontra esnea hartzen zen. Hurrei "Lombripur" ematen zieten, oso txarra zen eta hartzen zuten egunean ez ziren eskolara joaten.

34. Ez zen komunik, ez dutxarik

- **Erref:** IGA-016/010
- **Iraupena:** 0:00:39. **Hasi:** 00:15:06. **Bukatu:** 00:15:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Ez zen komunik, ez dutxarik. Ur-hostoekin garbitzen zuten ipurdia

35. Irratia

- **Erref:** IGA-016/011
- **Iraupena:** 0:00:30. **Hasi:** 00:15:45. **Bukatu:** 00:16:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Irrati txiki bat zuten baserrian. "Baxerri" programa entzuten zuten arratsaldero zazpietan.

36. Herrien fama eta errateak

- **Erref:** IGA-016/012
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:16:15. **Bukatu:** 00:18:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

"Igantzi, Madrid chiquito" erraten da, erdaraz egiten omen delako. Aranztarrek "harrikalari" fama zuten: Arantzako bestetara joaten zirenean, harrika hartzen zituzten

37. Euskara

- **Erref:** IGA-016/013
- **Iraupena:** 0:00:15. **Hasi:** 00:18:20. **Bukatu:** 00:18:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Lesaka eta Igantziko euskara antzekoa da. Etxalarkoa, berriz, diferentea da

38. Pitarra

- **Erref:** IGA-016/014
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:18:35. **Bukatu:** 00:20:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Pitarra nola egiten zuten azaltzen du: sagarrak azpil batean xehatu, urarekin nahastu, eta irakiten hasten denean, tapatu. Hogeia bat egun ondoren

probatzen zuten. Botiltzen zuten. Bizpahiru barrika egiten zituzten urtero. Gaztain erreak jatzen zituztenean edaten zuten.

39. Ameriketara joan aurreko lana

- **Erref:** IGA-016/016
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:20:16. **Bukatu:** 00:21:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Ameriketara joan aitzinetik, kanpoan obretan aritu zen lanean hiru urtez. 3250 pezeta irabazten zituen.

40. Gaztaroa. Igande arratsaldeak . Neskekin harremana

- **Erref:** IGA-016/017
- **Iraupena:** 0:04:25. **Hasi:** 00:21:16. **Bukatu:** 00:25:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Gaztetan, igande arratsaldetan, bezperetara joaten ziren, ondoren pilota partida jokatzeko zuten plazan, gero ostatura eta, azkenik, akordeoia paratzen zuten arkupetan neskekin dantzatzeko. Neska etxera laguntzen zuten eta, gero, herri-etxera afaltzera joaten ziren (16 pezeta kostatzen zuen: ardo botila, ogi-koskor bat eta gisatua edo txipiroiak). Hamabietarako etxera joaten ziren. Neskak, berriz, bezperetatik atera ondoren pasieran ibiltzen ziren, dantzaldia arte; ilun-ezkiak jotzen zuenean, etxera joan behar zuten. Neska eta mutilek eskutik helduta ibili zezaketen bakarrik. "Lehen motorra edo autoa zuenak, andregaia izaten zuen; besteek, ez". Emakumea nola ezagutu zuen azaltzen du.

41. Apostu gutxi

- **Erref:** IGA-016/018
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 00:25:41. **Bukatu:** 00:27:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Igantzin apostu gutxi egiten zituzten. Ez zen diru handia jokatzeko.

42. Beldurak eta sinesmenak

- **Erref:** IGA-016/020
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 00:27:14. **Bukatu:** 00:28:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Haur zela, “gau-beleei” beldur zien. Lehenagoko zaharrek sorginak izaten zirela erraten zuten. Oilarrak gauez kukurruku egiten zuenean, gatza sutara botatzen zuten: “ona barrena, gaiztua kanpora” erraten zuten.

43. Sinesmena. Arimari leihoa ireki

- **Erref:** IGA-016/021
- **Iraupena:** 0:00:25. **Hasi:** 00:28:38. **Bukatu:** 00:29:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

Gurasoek erraten zioten, norbait hiltzen zenean, ohe gainean uzten zutela gorpua eta gauean leihoa irekita uzten zela arima zerura joateko.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2025-12-09

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com